




Gizartea aldatzeko ariketa etengabea

90EKO HAMARKADAN sistemak ia guztia asimilatuta zeukan, eta horren barne musika undergroundaren zati handia. Hardcore-punk eszenak sorpresa gutxi eskaintzen zizkigun eta bat-batean Aragoitik hardcorea berrasmatu zuen El Corazón del Sapo izeneko taldeak. Musikalki ez ezik, musika estiloa baino bizijarreraren den honek zentzua hartu zuelako berriro; ezarritakoa ezbaian jarri eta suntsituz gizakia eraikitzekoa. Euskal Herrian ehunka bihotz berpiztu zituen eta taldea bera ere gure herriaz maitemindu zen. Hala, taldeko abeslari Fer Apoa euskalduna dugu aspalditik. Punk-rock-and-roll kementsuena euskaratu eta euskaldundu zuen Kuraia taldean aritu zen eta gaur egun musika industrial berpiztu duen Matxura taldean ere badabil. Baina bi proiektu horien artean, Kantabriako Kloakao taldeko kideekin eskola zaharreko hardcore-punk amorratuena egiteko Estricalla [hondamendia aragoieraz] sortu zuten.

Stop Control zigilu propioak ekoiztuta, kirola eta matxinada batzen dituzten hiru disko sukoi kaleratu dituzte, euskaraz eta gaztelaniaz abestuta: *Gimnasia revolucionaria* bata, *Fuegos Olímpicos* bestea, eta orain, *Triple asalto mortal*. Zapatilla hutsa, eskola zaharrekoa eta odolustu arte haginka egiten duena. Taldea musikalki mingarria eta oldarkorra bada ere, hitzek gizartean irensten duguna eraitsi eta gizakia erdigune izateko kontzientzia pizten dute nabarmen. Hitz oso landuak dira Fer-enak eta bibliografia zabala eskaintzen du disko guztietan.

Hirugarren lan hau orain arteko borobilena da, hardcore-punkaren irmotasunari eta garraztasunari ederto eutsiz, ñabardura zein osotasun zabalagoa eskaintzen diona. Kloakao taldeko bi kide gelditu



Triple salto mortal
Estricalla
Stop Control, 2013

dira eta horiei Erantzun-eko Hodei eta Hartzak Blues Band-eko Erik gehitu zaizkie. Taldea bere onenean dago.

Rockbespierre 1793 abestiak hardcore-punka gainbegiratu eta bukaera industrial du. *Ra-Joy división 1312 and his fascists dogs* eskola zaharrekoa, hardcore amorratua da, distortsioak lagunduta. *Radio paranoika 99.00 am* kanta punk-rocketik hardcore metalerora egiten du salto. *68º infernuko suaren kluba-k* Fer-en marka laburbiltzen du hardcorea eta melodia tartekatuz. *397 días encerrado en un cuarto de baño* abesti bereziena da, intro intrigantea, 713^o Amor-en arrastoa, hardcorea eta heavya (barkatu, rock gogorra) uztartuz.

Biniloaren B alde *Sal Paradise eta Dean Moriartyren 17. bidaia Martera* abestiak zabaltzen du, erritmo aldaketa eta melodia bereizgarriekin. *Opus diaboli 666* maldan beherako punk anfetaminikoa da. *Ziklo bat naiz* izenburuaren espresio bera. *2luzik* RKLren zigilua duen punk azkarra. Eta bukatzeko, pastelaren ginda, *The real terrorist and his 1001 weapons of mass oppression*: antzina DOA talde kanadarrak Dead Kennedys-eko abeslariarekin batera egin zuen maisu-lanaren haritik, Estricallak Jello Biafra gonbidatu eta antzeko emaitza lortu du, potentea, rockeroa, oinarri erritmiko oso sendoa duena eta bukatzea nahiko ez genukeena. ■

Iker Barandiaran

